

# Best Haize-errotak

H EKTOR ORTEGA SANTIAGO YANIZ

**E**rrota lurraldea izan da Euskal Herria mende askotan zehar. Gurean ez da ibarririk, ezta herrikerik ere kasik, errotarik, bolurik, bolinik, igararik edo eiherarik eduki ez duena. Ia denek ur latsen indarrak baliatuz funtzionatu izan dute, teknologia apala eta erabilera erraza uztartuz. Gutxi batzuek, ibai handietako bokaleen babesean, marearen oldarrak profitatu zituzten. Eta ale bakan batzuk baino ez, urak baztertu eta zerura begira paratu ziren: haize-errotak.

Asian sortu omen ziren, orain dela mila urte baino gehiago, eta arabiarren bidez Europara zabaldutako ziren. Antxon Aguirrek Nafarroan eriden ditu euskal haize-errotak zaharrenak, Erriberrin (1345) eta Artaxoan (*Ayç errota mendia*, XIV. mendea). Berriena ere han da, Olletan (1999). Donostiak 1370an jaso zuen haize-errotak altxatzeko errege baimena. Gure egunetara haize-errotak bakarraren lortza heldu da, Aieten. Araban hiru aipatu ditu Aguirrek, haietatik bi Opakua aldean, eta Lapurdin bat baino ez. Izan ere, Donibane Lohizune eta Ziburu artean, itsas aurrean, haize-errotak leku-izenak oraindik ere badirau.



*Asian sortu omen ziren, orain dela mila urte baino*

Multzorik handiena, oster, Bizkaian altxatu zuten. Alberto Díez ikerlariak dozena bat zenbatu zituen, gehienak XVIII. mendearen lehenengo erdialdean eraikiak. Lehorte luze baten ondorioz altxatu omen zituzten. Sikateak ibaien ur emaria urritu zuenez, errotak eta boluak lan egin ezinean gelditu ziren. Konponbide bila, 1723an Bilboko merkatari bik lehenengo *aixerrota* altxarazi zuten,


Artxandan. Ondoren gehiago etorri ziren, batzuk itsaslabarren gainean –Getxo, Sopela- beste batzuk kosta ondoko muinoetan –Santutxu (Bilbo), Lumo, Ispaster- eta gutxi batzuk barrualdean, Abadiñon berbarako. Getxoko Areetan beste bat eraiki zuten XIX. mendean, irin-lantegi batean. Egiari zor, gehienek urte gutxi egin zituzten ehoketan eta, ondoren, baserri bihurtu zituzten.

*gehiago, eta arabiarren bidez Europara zabaldutako ziren.*

Bizkaitar errotak hamar metro altu ziren, kono ebakiaren formakoak, harlangaitzez egindakoak. Sendoak, beraz, hormen goialdean lau besoei eusten zien ardatza paratzen zuten eta. Ardatz hura mugikorra zen, haizea nondik zetorrela ere, aprobetxatu ahal izateko. Hark ardatz nagusia (bertikala) mugiarazten zuen eta horrela bihia ehotu behar zuten errotarriak biraka hasten ziren.

Bizkaiko errotetatik lau (Karrantza, Portugalete, Nabarniz eta Morga) toponimiaren edo ahozko tradizioaren bidez ezagutu ditugu. Areetakoa eta Santutxukoa dokumentatuta daude. Lumoko Kosnoaga gainekoa 1806an eraiki zuten baina ez da haren arrastorik. Sopolako Arnabar aldekoak (Azkorri eta Barinatxe hondartzen artean) horma zati bati eusten dio, oraindik ere.

OLLETAKO HAIZE-ERROTA GOIZALDEKO ARGIEKIN JOLASEAN. ARGAZKI TXIKIAN, BESOAK.



## bat Larringan

Abadiñoko bazter honetako haize-errotak 1990an zaharberritu zuten Bizkaiko Foru Aldundiak. Bizkaian ohikoa zenez, *aixerrotak* esan izan diote eraikin horri. Itxura guztien arabera, XVIII. mendean eraiki zuten, nahiz eta dokumentazio idatzian 1868an agertu lehenengoz. Bizkaiko estiloan eginda dago: zortzi metro altu, hormak metro bat lodi, kono itxura eta solairu bi. Atentzioa ematen duen ateburua dauka, ildo neoklasikoaren zordun. Errota muino baten buru dago, haizeak ahal denik eta ondoen baliatzeko. Ahozko testigantza baten arabera, XVIII. mendean haize-errotak gisa erabili zuten. Geroztik, ostera, Larringan Erdikoa baserriaren eraikin osagarria bilakatu zen.

## bi Olleta

1999an berriz altxatutako errota da. Gerindako parke eolikoaren erdi-erdian altxatzen da, haize-errotaren lepoa esaten zioten lekuan, holako eraikin baten aztarnak aurkitu zituzten, XVIII. mendeko materialez. Leku egokia zen, haizetsua eta inguruetako mendilerroko tontorrek baino apalagoa (800 m). Errotak oin-plano biribila zuen eta harri sendoak zituen oinarri. La Manchako erroten eredu jarraituz (zilindro itxuraz) berreraiki zuten EHN enpresak, baina segurtasuna dela eta, aldaketa txikiak egin zituen, besoak laburrago jarritz esate baterako. Hiru solairu ditu eta ate bi behealdean. Barruko egiturak eta tramankuluak egurrezkoak dira. Olletakoa izan arren, San

Martin Unx eta Lerga herriei begira ere badago. Parke eolikoaren erdi-erdian altxatzen da, haize-errotak modernoekin lerroan.



## hiru Ispaster

Bizkaiko haize-errotak moda-modan jarri ziren sasoiaren altxatu zuten Aixeder. 1728an izan zen, Ispasterreko auzoen eskariari Lekeitioko Jose Gizaburuagak baietza eman zionean. Ispasterrekoek, beharizan handia zeukatela aitortu eta gero -1723ko lehorteak aurrera, batez ere-, Gizaburuagak egokien ikusten zuen lekua aukeratzeko proposatu zioten, eraikina egiteko materialak eurek emango zituztela aginduta. Sasoi hartantxe Lekeitiok bertako marea-errotak konpontzeko eskatu zion ugazabari, hain zen larria sikatea. Gizaburuagak lanak ordaindu zituen eta, horrela, 1729an, haize-errotak eraikiarazi zuten San Martin baselizaren ondoan, Soloane auzoan, itsasoko haizeek astintzen duten muino baten gainean. Lanen zuzendaritza Martin Larreak hartu zuen bere gain, berau izan baitzen Artxandako Aixerroren egilea, Bizkaiko erroten aitzindaria eta eredu. Itxura denez, 1745ean, lehorte gogorraren ondorioak zeharo gaindituta zeudela, ez zuten haize-errotak gisa erabiltzen. Hamar metro altu da, lau solairu ditu eta gaur egun berriztatuta dago, baina ez du bere baitan antzinako tramankuluen arrastorik.

GOJAN, ISPASTERREKO AIXEDER DOTOREA. BEHEAN, OLLETAKO HAIZE-ERROTA.

### NOLA HELDU:

#### LARRINGAN

Abadiñoko Mendiola auzora joan behar da eta, behin bertan, goialdera doan bide asfaltatutik jo, Larringaneraino. Abadiñotik bertatik paseo polita egin daiteke antzinako galtzadatik errotaraino.

#### OLLETA

Olleta Nafarroako Orbaibarren dago, Leotzen. Puiun (Tafalla ondoan), desbideratzea hartu behar da Olletara. Herritik bide luze txoa dago bertaraino. Bestalde, errazago, NA-132 errepedetik bide seinalezatuta dago haize-errotaraino. Eskoletako umeen bisitak hartu ohi ditu. EHN enpresarena da.

#### ISPASTER

Gernika-Lekeitio errepidearen alboan dago, Ispasterren, muino baten gainean, seinalezatuta eta ondo ikusteko moduan. Jabego pribatua da.



## host Artxandako Aixerrota

Bizkaiko haize-erroten historia hemen jaio zela esan daiteke, Bilbo gaineko muino honen gainean. Bertan, 1723an, Bilboko merkatari bik –Juan Herrero eta Manuel Bildosolak- haize-errotak eraikitzeari ekin zioten, sasoi hartako lehortearen ondorioz. 1725 urte aldean lanean jarri zuten. 1726an, esaterako, mila anega ehotu zuen. Hurrengo urteetan kopurua jaisten joan zen, harik eta, gainerakoak bezala, ehoketa baztertu eta baserri huts bilakatu zen arte. Martin Larrearen aginduetara altxatu zuten, bederratzi metro eta erdi altu egin zuten, ate birekin eta lau errotarrarekin. Hala karlistadetan nola 1937an borroka latzen erdian gelditu zen. 1937ko ekainean, Molaren osteak Bilbora sartzekotan zeudenean, Aixerrotak kalte larriak jasan zituen. Hala ere, galdutakoa konpondu eta gaur egun lerden altxatzen da Bilbo eta Txorierri arteko mendiaren buru.

ARTXANDAKO AIXERROTAK ZABALDU ZUEN HAIZE-ERROTEN BIDEA BIZKAIAN.

### NOLA HELDU:

#### GETXO

Getxoko Aixerrota Galeako lurmuturrerako bidean dago. Barrualdea ikus daiteke.

#### ARTXANDA

Aixerrota Sondikako udalerrian dago, Artxanda gainean. Santo Domingo/Egiletatik Enekurira doan errepidearen (BI-3741) ezkerrean ikusiko dugu, Pikoamendi pasatu eta gero. Jabego pribatua da.

## lan Getxoko Aixerrota

Lege Zaharreko industria eraikin xume hori Getxoko udalerriri ahaltsuaren ikur bilakatu da. Izan ere, bisitari ofizialei Udalak Aixerrotaren kopia txiki bat eman ohi die, oroigarri gisa. 1723ko sikatearen ondorioa dugu Getxoko errota hori ere. 1725ean Edmund Shee irlandarrak Arrigunagako labarren gaineko lur sailak erosi zituen, bertako hai-



GETXOKO AIXERROTA LERDEN ALTXATZEN DA ABRAKO ITSAS-LABARRREN GAIÑEAN.

ze ufada bortitzak profitatu behar zituen errota eraikitzeko. 1726an altxarazi zuen, Artxandakoaren ereduari jarraiki. Lehenengo urteetan ehoketarako baliatu zuten, baina, gainerakoekin gertatu zen bezalaxe, XVIII. mendearen erditik aurrera baserri hutsa izan zen. Getxoko Udalak 1955an erosi zuen, 25.000 pezetatan, Jose Juan Bautista Merino Urrutia euskaltzale ezaguna alkatea zela. Gaur egun arte galeria da Aixerrota eta, atxikita, jatetxea dauka. Berau da besoak berreskuratu dituen Bizkaiko haize-errotak bakarra.